

ZAINDUZ PROGRAMA “ZAINDU ZAITEZ”

GURETZAT GARRANTZITSUA ZARELAKO

**“MENDEKOTASUNA
DUTENENTZAKO
BALIABIDEAK, PRESTAZIOAK,
ELKARTEAK ETA
ADMINISTRAZIO-ALDERDIAK”**

SARRERA:

- 1. MENDEKOTASUNA ULERTZEKO GAKO-HITZAK**
- 2. MENDEKOTASUNA: JARRAIBIDEAK**
- 3. ZERBITZU ETA PRESTAZIOAK (PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK)**

Antonia Vázquez: Gizarte langilea / Santurtziko Udala
Mónica Velada: Agintzariko hezitzailea



**ESKABIDEAK
MENDEKOTASUNA
EGUNEROKO JARDUERAK
EZGAITASUNA
BALORAZIOAK
BANAKAKO PARTE HARTZE PLANA
NON? NOLA? ZERGATIK?**

I. MENDEKOTASUNA ULERTZEKO GAKO-HITZAK

■ MINUSBALIOTASUNA

Urritasun edo ezgaitasunen baten ondorioz, gizaki jakin batek bizi duen desabantaila-egoera, zeinek mugatu edo ezinezko egiten dion bere kasuan normala litzatekeen rola betetzea (adina, sexua eta faktore sozialak zein kulturalak). Hauxe da Munduko Osasun Erakundearen Urritasun, Ezgaitasun eta Minusbaliotasunaren Nazioarteko Sailkapenak ematen duen definizioa.

■ EZGAITASUNA (%33)

Gizaki batek urritasun fisiko edo psikikoa dela-eta, jarduera jakin batzuk egiteko duen ezgaitasuna.

■ ELBARRITASUNA

Gizaki batek denboraldi batean edo betiko bere ohiko lana edo bestelako lan bat egiteko duen ezgaitasun partziala edo osoa. Gizaki batek urritasun fisiko edo psikikoa dela-eta, jarduera jakin batzuk egiteko duen ezgaitasuna.

■ GAIXOTASUNA

II.- MENDEKOTASUNA

“...adinak, gaixotasunak edo ezgaitasunak **eraginda**, gorputz-, buru-, adimen- edo zentzumen-autonomia eza edo galera duten pertsonak bizi duten **egoera iraunkorra**, zeinetan **beste baten edo beste batzuen arreta edo laguntza behar** duten **eguneroko oinarrizko jarduerak** egiteko, eta adimeneko ezgaitasuna edo buruko gaitza dutenen kasuan, autonomia pertsonala izateko beste prestazio batzuk behar dituzten pertsonak.

“Mendekotasun egoeran daudenen Autonomia eta horientzako Arreta Sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 2006/39 Legearen 2.2 art”.

Pertsona bat mendekotasun egoeran egon daiteke noiz-eta:

- Adinak, gaixotasunak edo ezgaitasunak eraginda, etengabe **BESTE BATEN LAGUNTZA** behar denean
- **EGUNEROKO OINARRIZKO JARDUERETARAKO (EOJ)** beste baten arreta behar denean, horrelakoak gutxieneko autonomia eta independentziaz mugi daitezke. Horrela bada, bere burua zaindu eta garbitzeko gai dira, oinarrizko etxeko lanak egiten dituzte, mugitzeko oinarrizko gaitasuna dute, pertsonak eta gauzak ezagutzen dituzte, ez dute norabidea galtzen, ulertzeko gai dira, bai eta agindu edo zeregin errazak betetzeko ere.

Pertsona bat ez dago berez mendekotasun-egoeran hurrengo kasu hauetan:

- Ebakuntza baten ostean beste baten laguntza behar duenean.
- Lesio bat izan eta aldi baterako geldi egon behar duenean
- Lanerako ezgaitasunen bat edo bestelako ezgaitasunik aitortuta duenean.
- Adina dela-eta une jakin batzuetan laguntza behar duenean.

MENDEKOTASUNA: JARRAIBIDEAK

Mendekotasun egoera dagoenean:

Udaletxean **eskaera orria** aurkeztu. Mendekotasuna duen pertsona non errolatuta egon, horko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar da lehenengo eskaera, interesatuak edo horren ordezkariak sinatuta.

Berrikuspenak: Zuzenean Foru Aldundian aurkez daitezke.

Dokumentazioa:

Inprimakia, nortasun agiriaren eta osasun txartelaren fotokopia.

Osasun-txostena (eredua), errolda-agiria, bankuan helbideratzeko fitxa eta borondatezko ordezkari buruzko agiria.

- 1.- Eskaera orria bete eta Santurtziko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan (OGZ) aurkeztu behar da.
- 2.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eskaera orria Bizkaiko Foru Aldundira igorriko du.
- 3.- Bizkaiko Foru Aldundiak telefonoz deituko dizu **ETXEAN BISITA EGITEKO** hitzordua lotzeko. Diziplina anitzeko talde batek ebaluazioa egin eta **Arreta Emateko Banakako Plana (AEBP)** egingo du, mendekotasunaren aurretik egin beharreko orientazioa.
- 4.- Bizkaiko Foru Aldundiak ebazpena eta Arreta Emateko Banakako Plana (AEBP) eskatzailearen etxera bidaliko ditu.

Ebazpena plazaratzeko epea: gehienez 2 hilabete etxerako bisita egiten denetik.

Dependentzia mailaren arabera, Zerbitzu eta Prestazio jakin batzuk jasotzeko eskubidea egongo da, edonola ere, horiek Arreta Emateko Banakako Planean (**AEBP**) jasota egon beharko dira, non esku hartzeko modurik egokienak ere jasota egongo diren pertsona horren bizi-kalitateari eutsi edo hobetze aldera.

AEBP eskatzailearen etxean bertan egiten da eta eskatzaileak berak edota bere familia edo bere ordezkari gisa diharduten tutoretza-erakundeek parte hartzen dute lan horretan, proposatzen diren arreta-ekintzak hautatuz.

Interesatuak beren-beregi horrela adierazten badu, AEBP eskaera-orri gisa erabil daiteke onuradunak eskubidez jaso dezakeen zerbitzu edo laguntza eskatzeko.

AEBP administrazio-ebazpenaren bidez jakinaraziko da.

III. PRESTAZIO ETA ZERBITZUAK

Aitortu gabeko maila (25 puntutik behera)

I. maila (25-50 puntu)

Hurrengo hauetarako aukera:

MENDEKOTASUNAK PREBENITZEKO ZERBITZUA, AUTONOMIAREN SUSTAPENA ETA ZAINZAILLEENTZAKO LAGUNTZA

TELELAGUNTZA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

25 puntu: hilean 12 eta 20 ordu artean

40 puntu: hilean 21 eta 30 ordu artean

EGUNEKO ZENTROA

LAGUNTZA:

Zainketa informala 180 €/hilero 40 puntu (%20rainoko ezgaitasuna)

II. maila (50-75 puntu)

Hurrengo hauetarako aukera:

ZERBITZUAK, MENDEKOTASUNA PREBENITZEKO ZERBITZUAK, AUTONOMIAREN SUSTAPENA ETA ZAINZAILLEENTZAKO LAGUNTZA

TELELAGUNTZA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

50 puntu: hilean 30 eta 40 ordu artean

65 puntu: hilean 40 eta 55 ordu artean

EGUNEKO ZENTROA

LAGUNTZA

Zerbitzuarekin lotutakoa.

462€/hilean 65 puntu

401,20€/hilean 50 puntu

Zainketa informalerako.

337,25€/hilean 65 puntu

300,90€/hilean 50 puntu

III. maila (75-100 puntu)

Hurrengo hauetarako aukera:

ZERBITZUAK, MENDEKOTASUNA PREBENITZEKO ZERBITZUAK,
AUTONOMIAREN SUSTAPENA ETA ZAINTZAILEENTZAKO LAGUNTZA

TELELAGUNTZA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

75 puntu: hilean 55 eta 70 ordu artean

90 puntu: hilean 70 eta 90 ordu artean

EGUNEKO ZENTROA

EGOITZA aldi baterako edo betiko.

LAGUNTZA

Zerbitzuarekin lotutakoa.

833,96€/hilean 90 puntu
625,47€/hilean 75 puntu

Zainketa informalerako.
520,39€/hilean 90 puntu
416,98€/hilean 75 puntu

Laguntza pertsonala:
833.96€/hilean 90 puntu
625,47€/hilean 75 puntu

Gaur egun hurrengo eskubide hauek daude aitortuta:

II. eta III. maila: Estatutik datozen Zerbitzu eta Prestazio guztietarako.

I. maila, 40 puntu: Senitartekoek gaixoa zaintzeko laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea (Bizkaia eta EAE)

I. maila: Eguneko Zentrorako, GIZATEK, Laguntza Goiztiarrerako eta Laguntza Pertsonala jasotzeko eskubidea (Bizkaia eta EAE).

Beste baliabide edo zerbitzu batzuk

Publikoak:

Udal Programak

Gune sozio-sanitarioa (Osakidetza)

Orientabide juridikoa (Foru Aldundia)

Beste baliabide pribatu batzuk

ORIENTABIDE JURIDIKOAK

Zertarako: Oinarrizko orientabide juridikoa edo bestela, arazoak konponduko dizkienengana bidali.

Testamentuak, jaraunspena eta oinordetza

Gizarte Segurantzako pentsioak eta gizarte izaerako laguntza edo zerbitzuak.

Dibortzioak, hitzarmen arauemaileak eta bisita-erregimena

Kontsumo, aseguru eta bankuak

Laguntza judizialari buruzko informazioa, agiri judizialak eta beharrezkoa balitz, justizia doan izateko eskaera.

Auzokideekiko arazoak, jabetza horizontala

Ezgaitasun judiziala eta babes judiziala

Administrazioetan egin beharreko beste izapide batzuk (gizarte izaerakoak ez direnak)

Nor: Bizkaian erroldatutako 60 urtetik gorako pertsonak.

Non eta noiz: Lertxundi,14 – Bilbo (Zabalgune Plaza), astelehenetik ostiralera 9:00etatik 11:00etara, hitzordua aldeztatik eskatuta.

Nola eskatu aldeztatik hitzordua: Gizarte Ekintzako 900 22 00 02 telefono zenbakira deituta (doan) eta webgunearen bidez..

OSASUN ZERBITZUAK

San Juan de Dios Ospitalea:

“Zurekin Zainduz, Cuidando Contigo” programa. Tresna honen helburua senitartekoei laguntza ematea da mendekotasuna duen pertsonaren bizitzaren bukaera aldean.

Heriotza hurbil duten gaixoen zaintzaileentzako laguntza.

Galerak izan dituzten senideentzako dolu-taldea.

Heriotza hurbil duten gaixo eta gaixo kronikoentzako arreta psikosoziala, bai Ospitalean eta bai etxean.

Pazienteentzako okupazio-jarduera eta jarduera ludikoei buruzko programa.

Inguruko ikastetxeen hezkuntza-proiektuaren barruan baloreetan hezteak.

Gizartean zabaltzea prestakuntza gela bidez.

36 lagunez osatutako zerbitzua kudeatzea. Boluntario hauek laguntza eta babesa ematen dizkiete heriotza hurbil duten gaixoei, gaixo kronikoei eta txarrago dabilzan senideei.

ZERBITZUAK

Telefono bidezko arreta astegun guztietan 10:00etatik 13:00etara. Senide eta zaintzaileentzako heziketa eta babes-taldea.

Materiala eta bibliografia prestakuntza, aholkularitza, informazio eta abarretarako.

KABIEZESEKO BIRGAITZE UNITATEA - BIDAIDEAK

Birgaitzeko zerbitzuak eskaintzen dizkie Santurtziko udalerrian bizi eta urritasuna duten pertsonari.

Hurrengo zerbitzu hauek eskaintzen ditu: Fisioterapia, elektroterapia, magnetoterapia, masaje terapeutikoa, ultrasoinuak, sasoi mantentzeko gimnastika eta logopedia. Horrez gain, aterik ateko garraioa.

Zerbitzua jasotzeko deitu 94 462 94 00 telefonora hitzordua eskatzeko. Lehenengo kontsulta miatzeko baino ez da.

Ferran dr 10, behealdea

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara
Zerbitzua Santurtziko Udalak finantzatuta dago eta Bidaideak ematen du.

Beste zerbitzu batzuk:

ATERIK ATEKO GARRAIO ZERBITZUA

Zerbitzuaren kostea: banan-banakako eskariak doan dira, kolektiboak, berriz, ordainpekoak.

Nola eskatu: Telefonoz deitu behar da 94 426 66 00 zenbakira zerbitzua jaso baino 48 ordu lehenago gutxienez eta berau konfirmatu 24 ordu lehenago telefono zenbaki berera deituz.

HONDARTZA DENONTZAT

Non: Plentzia, Ereaga, Lekeitio, Zierbena eta Laida

Noiz: uztail eta abuztuan

ELKARTEAK

- Adinekoen elkarteak (orokorrean jubilatuen etxeak).
- Gurutze Gorria
- Caritas

Senide-elkarteak:

-AFA Alzheimerra dutenen senideen elkarte.

<http://www.afa-bizkaia.com/>.

ASPARBI Parkinsona dutenen senideen elkarte

<http://asparbi.kzcomunidades.net/es/html/>.

Zaintzaileena: Bizkaian bakar-bakarrik Etxe Alaia (Mungia).

Araban Ascudean <http://www.ascudean.es/>

DENDAK ETA SALTOKIAK

ABUELO ACTUAL:

EPALZAREN ALARGUNA, 9. 48005 BILBO

DIAZ HAROKO MARIA, 26. 48010 BILBO

UHAGONLAN BARAKALDO

NAFARROA, 20 LONJA. 48901 BARAKALDO

PAUSOKA – GURUTZE GORRIA

CONCHA JENERALA, 34-36. 48012 BILBO Tel: 944103984

FEKOOR

BLAS DE OTERO, 63 LONJA. 48014 BILBO Tel: 944053666